

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko irailaren 28a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Elizondo** • Egungo gizartearen hausnarketa bultzatzeko, Nekazalpunk Eguna antolatu dute iganderako  
**Joxean Subizar** • «Bidasoak eta ingurumena zaintzeko gogoak batzen gaitu Aizkolegi Taldeko kideak»

• MIKEL SAIZ

## Laietan bilin-balan



Garesko eta Artaxonako gazteek, urteetako tradizioari eutsiz, ekitaldi bitxi-bitxia antolatu dute. Arbasoek lurra iraultzeko erabiltzen zuten lanabesaren gainean, laiaren gainean hain zuzen ere, lasterketak egiten dituzte haien herriko karrketan barna. Maldan gora Artaxonan, eta ibilbide lauan Garesen. Laia lasterketa ekitaldi handi bihurtu da bi herrixka hauefako jaietan. Igande honetan, eguerdiko ordu bata eta erdietan izanen dute urte honetako aurreneko hitzordua Garesen. Bigarrena Artaxonan izanen da, azaroaren 25ean. Ikuskizuna xarmangarria da benetan.



Doneztebe ●

# Zortzimilakoen estreinaren oroimenez

Lehen aldiz zortzi mila metrotik gora igo ziren euskal mendizaleak bilduko dira gaur

**1979** KO MAIATZAREN 12an iritsi ziren Dhaulagiriko gainera Xabier Garaioa, Iñaki Aldaia eta Gerardo Plaza euskal herritarrak. Eurekin ziren Jordi Pons katalana eta Ang Rita sherpa ere. Nafarroako espedizio handi bat abiatu zen lehenbizikoz zortzi mila metroko gailurra egitera, eta hiru euskal herritarrek lortu zuten gaina mendean hartzea. Orotara hemezortzi lagunak osatzen zuten espedizioa, hamalau nafarrek eta lau katalanek. Lehen aldia zen zortzimilako bat igotzen zutena euskal mendizaleek, eta bide luze baten atariko gertatu zen. Hainbertze belaunaldi mendi garaienarako bidea zabaldu zuten espedizio hark. Haren gibeletik abiatu ziren hainbertze espedizio, tartean urtebete geroago, 1980ko maiatzaren 14an, Everestera iritsi zen euskal espedizioa ere. 80ko hamarkada eta, bereziki, 90ekoa apartekoak izan dira euskal mendizaleentzat. Dhaulagiriko espedizio haren papera, hortaz, gorestekoa da.

Orain, 22 urte geroago, Garaioa, Aldaia eta Pons berriz ere elkartuko dira orduko gertakizunak kontatzeko. Gerardo Plaza taldekide hilari gorazarre egiteko aprobetxatuko dute ekitaldia, bide batez.

16 mm-ko kamera batekin grabatu zuten orduko igoera



Ang Rita, Jordi Pons, Xabier Garaioa eta Iñaki Aldaia Dhaulagiri mendiaren tontorrean. ● GERARDO PLAZA



**Doneztebeko zinemak bilduko ditu gaur iluntzeko 19:00etan zortzi mila metroko gailur batera iritsi zen lehen euskal espedizioko kideak. Erreka kirol elkartearen 25. urteurrenaren ekitaldien barruan antolatu emanaldian igoeraren filma eta argazkiak ikusi ahal izanen dira, eta protagonistetako batzuk mintzatuko dira.**

hura. Bere garaian, filma Euskal Herriko hainbat fokitan eman zuten, eta gaur berean Doneztebeko zineman eskainiko dute emanaldi hori. Lehenago, hala ere, 19:00etan, garai hartako argazkiak, agiriak eta hainbat osagai erakutsiko dituzte, tartean gailurra iritsi zuten ziurtagiria. 20:00etatik goiti, berriz, filma eskainiko dute, eta ondotik ere ez da aukera faltarik izanen

espedizio hartako kideekin solastatzeko. Tarte hori hartuko dute Gerardo Plaza omentzeko. Gailurrerako bidearen kontaktuzun guztia jasota dute mendizaleek orduan ateratako liburuan.

Mendigoizalatasunak izan duen bilakaera eta goi mendietara joateko ohiturak zein espedizioen antolaketa zenbat aldatu den ikusteko balioko du gaurko emanaldiak ere. Garai hartan

babes komertzialik gabe joan zen talde hura Himalayara, eta zamaren zati handi bat eurek eraman zuten bizkar gainean. Kontuan hartu behar da, halaber, orain 22 urte ez zela gaur egungo aurrerakuntza teknikorik, eta material guztiak (jantzia, dendak, elikagaiak...) astunagoak zirela.

→ Jon Abril

→ Kristina Berasain

Lizarra  
●  
Pintura  
Biurtekoaren  
V. aldia


LIZARRA HIRIKO V. PINTURA Biurtekoa aurkeztu berri du bertako Udalak. 1994an egin zen aurreneko urtez margo lehiaketa hori. Geroztik, aunitz koadroren jabe egin da Udala eta, egun, koadro horiek herriko hainbat eraikinetan ikus daitezke, udaletxean esaterako. Bilduma hori handitzeko asmoz, aurten ere Biurtekoan parte hartzeko deialdia egin du Udalak. Lanak azaroaren 25a baino lehen igorri behar dira, Gustavo Maeztu museora, San Nicolas Kaleko aurreneko zenbakira. Koadroek 60x60 eta 2x2 neurri bitartekoak izan behar dute.

Gustavo Maeztu museoko zuzendari Caminó Paredesen hitzetan, aurkeztu diren koadroak oso kalitate onekoak dira, eta duela bi urteko ekitaldian 150 lan inguru aurkeztu zirela gogorarazi zuen. «Pixkanaka finkatzen doa lehiaketa, eta gorapatzekoa da epaimahaiak duen kalitatea; izan ere, horrek egiten du berezi gure Biurtekoa». Aurtengo epaimahai honakoek osatuko dute: Juan Manuel Bonet, Ramon Escrivá, Javier Gonzalez Durana eta Rosa Martinez. Azaroaren 30ean emanen du jakitera epaimahaiak irabazlea nor den.

Aurtengo berrikuntzarik nabariena diru saria handitu izana da: bi milioi eta erditik hiru milioi pezetara. Milioi bat saridunarentzat izanen da, bertze milioi bat koadroak erosteko erabiliko du Udalak, eta gainerakoa gastuei aurre egiteko. Iazko irabazlea Miguel Galano izan zen, *Naturala* lanarekin.

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



**XXI.** mendea emakumearena izango zela entzun ahal izan genuen hainbat aldiz oraindik mende zaharretik irten gabe geundela; eta ez genuen mezu itxaropentsu hori entzun bakarrik, sinetsi ere izan nahi genuen, funtsean, nahikari horren gauzatzeak zerbait berri ekarriko zizulakoan. Horrekin esan nahi zen, hala ulertzen nuen nik, gizateriak XX.ean pairatu zituen gerra odoltsuak eta bestelako ezbehar anitz gizasemeak berak sortuak zituela, eta, beraren handikeria zela kausa —han-hemenka gertatu ziren errealtate ezin latzagoak ikusita, batik bat, munduko bi gerra handiek ekarritakoak—, bazetorkeela beste garai bat, beste aro berri bat, non emakumeak berezkoa duen jarrera ez bortitza batetik, eta bestetik, gizakiekin

## Non mende berria?

zein naturarekin harremanetan sartzeko ageri duen ikuspegi lagunkoi eta bihozberagoa —berari buruz aipatu ohi diren balore edo dohain azpiragarrienak nabarmen-tzeagatik— gailenduko zitzaizkien, gutxika eta kostata bada ere, gizasemeak, bere orokortasunean hartua,

historikoki erakutsi dituen zenbait jokabide ezinago gaiztortzi; gogortzale, suminkor eta menperatzaile, hain zuzen, maiz azaltzen zaigu-eta gizasemea historian zehar, batez ere, XX. mendeari dagokionez.

Pasa den irailaren hamaikaz geroztik, ordea, erabat zapuztuta geratu da, epe ertainean bederen, gorago azaldu ideia pizgarri hori; izan ere, ekialdeko gizaseme bizardunak nola mendebaldeko bizarrak gabekoak (Alaren eta Yavhe-ren jarraitzaile sutsuak, hurrenez hurren)

protagonizatzen ari baitira egunotan, beste behin —bakoitzak heriotza eragiteko ahalmen ikaragarria duela—, lehenagotik ongi barneratuta zeukatzen ideia nagusia, hots, gizateriaren arazoak bortxa erabiliz soilik konpon daitezkeela; sufrimendua zabaldu besterik ez dagoela, baldin eta hainbat bidegabekeria zuzendu nahi bada.

Yavhe dotore eta aberatsa da; Ala, berriz, zarpaile eta txiroa. Bion artean ari dira borrokan. Ez da bada zertan esan, bietarik gizonezkoena nor den dutela amets. Semeak nahi dituzte gerrarako, eta alabak seme gehiago erditzeko. Paradisuan, finean, denok —huri-ekin eta broker-ekin batera— zoriontsu izan gaitezen betikoz. Noizko mende bat emakume-agnostikoentzat?

# Elizondo • Ikusmira handiko Nekazalpunk Eguna

Egungo gizartearen norabideari buruzko hausnarketa bultzatu nahi du

**Baztango Nekazalpunk gazte taldeak gizarteak bizi duen erokeria kapitalista salatu nahi du aldarrikapenezko besta egun honetan. Autogestioa bultzatu nahi dute, lurrarekiko loturak sendotuz eta boterearekiko askatasuna lortuz.**



Nekazalpunk Egunaren antolaketa taldeko kideak, Elizondon. • OSKAR MONTERO

**I**ZEN BEREZIA HAUTATU DUTE BENETAN BESTA hau bataiatzeko Baztango gazte batzuek: *Nekazalpunk*. Bi gauza horiek inolako loturarik ez dutela iruditzen bazaigu ere, Nekazalpunk elkarte-koek argi daukate: «Historikoki planteatu izan da teknika eta zientzia natura dominatzeko modu bezala, naturari nagusitu behar zitzaiola, eta guk uste dugu etorkizunerako bizi-proiektu bat landu nahi badugu, hori lurraren baitan egin beharko dela, harekin bat etorri. Punk, berriz, punk mugimenduak testuinguru sozial eta ekonomikoarekin haustura bilatu izan duelako beti, errotik. Ildo horretatik, Nekazalpunk Eguna lurrarekiko harrimana lantzeko proiektua izanen da eta, era berean, garapen eredu desarrollista eta kapitalista erabat baztertzeko», azaltzen du Joseba Otondok.

Bihar izanen da hitzordua, Elizondon; goiz-goizetik ekitaldi ugari izanen dira plaza eta karriketan, gaur egungo gizarte ereduari buruzko hausnarketa bultzatzeko. Gizarteko eztabaidak zeintzuk diren kontuan hartzea nahi dute, Nekazalpunkeko arduradunen ustez «dugun gizarte hori baliagarria ez dela ondorioztatu dugulako». «Aurreko hilabeteetan guk egin ditugun hausnarketa horiek gizarteratu nahirik, Baztanen honelako egun bat antolatzea erabaki dugu», zehaztu zuen Joseba Otondo Elizondoko gazteak. Euskal Herrian sistemari aurka egin nahi dioten bizipenen topagune izan nahi du Nekazalpunk Eguna. Baztango gazte hauek ez dute inolako diru laguntzarik jasoko honelako muntaia antolatzeko. Autogestioaren bidea indartu nahi-

rik, parte hartzen duten talde guztiak doan etortzea lortu dute. Era berean, materiala (pegatak, kamisetak...) publizitatea eta abar autogestionatua izatea lortu dute. Nekazalpunk Elkarte talde irekia da. Bilertan 10-15 bat gazte egon badira ere —Baztandarrak gehienak—, bestaren berri izan den heinean gero eta elkarte eta lagun gehiago bat egin dute ekintzekin. «Gauza irekia da, jende ugari etorri zaigu esparru diferentetan lan egiten duena, betiere sistemarekin kritikoa dena», adierazi du Nora Salbotx Nekazalpunkeko kideak.

## Toki aunitzetatik jasotako eraginak

Toki aunitzetatik jasotzen dituzten eraginak Nekazalpunk Egunaren hausnarketa bideak: ekologismoa, tesi libertarioak eta, oro-

har, gizarte kapitalistarekin bat ez datozen ideien multzoa.

Nekazalpunkeko antolatzaileak hasiera batean ez ziren besta bat antolatzeko asmoarekin bildu. Kezkak azaldu eta topagune gisako bat egitea zen helburua. Biharko bestan ustekabean gauzatu da dena, eta programan islatu diren ekitaldietatik at gehiago egotea espero dute gazte baztandarrek.

Baztango gizartearengana modu orokor batean hurbildu nahi dute antolatzaileak, sortu den eztabaida gizarteratzeko asmoz. Jarrerak bateratzea da helburua, Baztango geroa erabat saldua ikusten baitute Nekazalpunkeko gazteak, bertakoek ez baitute aterabiderik. Bailaratik kanpo ateratzea da bide bakarra ikasi edo lan egiteko.

→ Rakel Goñi

## Parodia

Sukaldeko mahaian osatzen ari naizen Nafarroako Maketa erraldoi batean lanean nabil, irratan udal agintari batek esandakoa zabaltzen dutenean: «29ko kontsulta hori Demokraziaren parodia bat besterik ez da». Eta bat-batean falta zitzaidan hitza erortzen zait eskuetara: Parodia. Bere geometria zehatz eta distirantearekin, orotarikoz giltzak dituen sinpletasunarekin: Parodia! Orduan flexora hurbiltzen naiz eta berrehun wateko argipean alde guztietatik begiratzeko diot pieza berriari eta bere egokitasun borobilaz jabeturik irribarretsu hurbiltzen naiz mahaian paratutako maketarantz. Hemen daude, porruen artean, gizasemen arropaz jantziriko tximinoak (eta tximinoz jantzitako gizasemeak). Hortxe funtzionario nahi izatearen gaitza zabaltzen dituzten Erietxetako ekografoak (edo Hipotesiaren zirriborroa). Harantzago bi unibertsitateak, bata Opusekoa. Bi ospitaleak, bata Opusekoa. Gobernu bakarra, Opusekoa. Han jarri ditut, nahaste-borraste batean, Komertzio Ganbera, Konptos eta Herriaren Defendatzailea, eta mahaiaren azpitik lurrazpiko pasabide batzuk, bertakoek leku batetik bestera, azaleratu gabe, mugitzeko errazago izan dezaten.

Nafarroako Gobernu kristoren gonarekin eraiki dut. Gonaren azpian, egunkarietatik hasi eta futbol taldeekin amaitu, denak daude barruan. Hemen daude abokatu, erakitzzaileak eta kazetariak. Beste leku batera begiratzen duten arkitekto, historialari eta arkeologoak. Gonaren babesera Merkatu Sakratuaren aldeko guztiek egiten dute, eta baita Prentsaren Independentzia hitza ozenki botatzen dutenek ere. Lavolsvagen-ek eskua gonaren azpitik sartzen dio. Parodia hitza leku hauetan guztietan egokitzen da. Dena da Parodia Nafarroan. Kazetari, arkeologo zein astrologoen Estilo-Liburuak eta Etika-Kodeak hartu eta ikusiko duzue zeinen ongi moldatzen den Parodia hitza lerro guztien nafar-errealitatearekin. Hemen boteretsuen prentsurreko guztiak dira Parodiak. Joder! Zein hitz egokia! ●

Lotsagabeen iraultza

# NEKAZALPUNK

Elizondoko irailaren 29an eguna

28an gaita poteon  
29an hestetik goiti  
gurek  
produktu ekologikoen merkaturu,  
hazi ekologikoen trukea,  
sendabelar eta ukenduk,  
haurtzaindria,  
ezbaintza,  
hezkuntza eredu alternatiboa,  
energia berriztagarriak,  
birziklapena,  
droga,  
Kale antzerki,  
antzerkia  
LAKAZA (Agu-O en Itoiz),  
txotxongiloak,  
talabarrak,  
zirkoa,  
haurrenako jolasak,  
bertsolaria,  
gaiterik,  
taloak,  
graffitik...  
...  
sexualitatea,  
leapunketa,  
frankuskeria,  
presoi buruzkoa,  
Pirineotako autobidea...  
...  
UPESUEK,  
GARTYOT,  
ELEKTROTUNA,  
txalaparta,  
jimenak,  
fanfarreak...

Setan (ANFISESTALIA)  
Guzen afari herrikoi eta  
alimaleko gaitza

## egitaraua

### Ostirala

Iluntzean: Ongietorria, kanpalekuan.

### Larunbata

**10:00:** Azoka, Elizondoko plazan. Bertan mozkin ekologikoak; barazkiak, ezti, gasna, arto-irina, taloak, eta abar erosi eta dastatu ahal izanen da. Halaber, sendabelar eta ukenduak egonen dira. Artisanu erakusketak ere paratuko dute.

Goizean, lantegiak, kontrainformazio guneak eta haurrenako jokoak izanen dira. Maimur animazio taldeak eta Baionako malabaristek girotuko dute goiza.

**14:00:** Herri bazkaria, herriko plazan.

**16:00:** Gartxoten kantaldia.

**17:00:** *Agua 0 en Itoiz* antzerki lana taularatuko da.

**18:00:** Eko4 taldearen emanaldia.

**19:00:** *Gizarte Aldaketa Bulkatu* lelopean, manifestaldia egingen dute Elizondoko karriketan barna. Bukaeran, bertsolaria, txalapartaria eta elektrotuna izanen dira.

**20:00:** Elektrotuna karrikak girotzen ibiliko da iluntze parte horretan.

**21:00:** Oztibarreko antzerki taldearen saioa.

**22:00:** Afari herrikoi eta begetarianoa.

# Tradizioari eutsiz!

Mesopotamian jatorria duen lanabesaren esanahia berreskuratu dute Gares eta Artaxonako belaunaldi gazteek Laiaren Lasterketa xeibrearekin.

Gure arbasoek uztaren ondoko soroak iraultzeko laia erabili izan zuten mendeetan. Bertako lanabesa dugu, antigoalekoa, Euskal Herrian historia aurretik erabili izan dena. Laiariak bakarka edo taldean aritzen ziren. Gero, bertze herri kiroletan gisara, laia-apustuak egiten zituzten, lanetik bueltan, laiaren gainean ibiltzeko gai ziren erakusteko. Garai batean laiariek zuten ohitura hori berreskuratu nahian, Gares eta Artaxonako gazteek antzinako lanabesarekin lasterketak antolatzeari ekin zioten, urteetako tradizioari eutsiz.

**A**ZOKA EGUNA EGITARAUAREN KARIETARA egin zen aurreneko Laia Lasterketa Garesen. Herriko gazteak bildu eta ekitaldi berri eta berezi bat egiteko asmotan, antzinako lanabesaren gainean lasterketa egitea otu zitzairen. Duela 18 urte izan zen hori. Beren arbasoek karrika horietan bertan egiten zituzten apustuak ekarri zituzten gogora. «Nire aitona sarritan kontatzen zituen hemen eta ondoko herrietan laiarren artean egiten zituzten apustuen istorioak. Garesen, Artaxonan eta Ziraukin egiten zituztela esaten zuen», ekarri du gogora Koldo Kolomo gazteak. «Finean, herri kirol bat da laian ibiltzea. Lanetik etortzerakoan nekazariak apustuak egiten zituzten, ea nor zen gauza laien gainean ibiltzeko».

Izarbeibar ibarrean mahastiak lantzeko erabiltzen zen laia. Laiariak bakarka edo taldeetan joaten ziren laiatzera. Laia lana egiteko modu bat baino gehiago omen zeuden. Hasierako laiaketa egin ondoren, lur zatiak oso handiak ziren, eta horiek txikitzeko lera erabiltzen zuten. Lurra sakonkiagoa lantzeko, berriz, ondalan egiten zuten, hau da, lurra bigarren aldiz laiatu. Goldearen

sorrerarekin, ordea, laiaren erabilera murrizten joan zen. Alta, egun, barazietan eta lur soro txikietan erabiltzen jarraitzen dute zenbaitzuek, batez ere, nekazari zaharrenek.

Euskal Herrian ere laia mota asko erabili izan dira; izan ere, landu beharreko luraren ezaugarrietara egokitzen da laia. Ildo horretan, Nafarroako iparraldean eta Gipuzkoan lurra gogorragoa omen denez, laien hortzak luzeagoak dira, eta kirtena motzagoa; beraz, eskuakin baino ez da erabiltzen. Erdialdean eta erribera aldean, berriz, lurra bigunagoa izaki, hortzak motzak dira, eta kirtenak luzeak; ondorioz, oinekina eta eskuakin erabiltzen da.

## Garesen eta Artaxonaren arteko lehia

Arestian erran bezala, Gares eta Artaxonako belaunaldi gazteek aitona-amonen laiak etxeko ganbaratik hartu eta urteetako apustu lasterketak antolatzeari ekin zieten. 1983. urtean egin zuten aurreneko lasterketa, Garesko karrika nagusian, Donejakue bide-

Euskal Herrian laia mota ezberdinak erabili dira historian zehar, izan ere, landu beharreko luraren ezaugarrietara egokitzen ohi da laia

ak bete-bete zeharkatzen duen harrizko karrikan, hain zuzen ere. Orduan hogeiren bat laguneko taldea bildu zen. Gareskoak gehienak, baina baita ondoko herrietakoak ere, Artaxonakoak batib bat. Hauek, ekimen honekin txundituta, beren herrian ere lasterketa egitea pentsatu zuten. Hasiera batean, karrika lau batean egin zuten, baina Artaxonako bereizgarri garantzitsuena bere aldpak izaki, maldan gora egitea erabaki zuten gerora. Orain halaxe egiten dute, harresietara doan bide aldatzuan gora.

Lasterketa San Saturnino egunetik gertuen dagoen azaroko igandean egiten dute, aurreneko igandean egiten dute, aurreneko igandean bertan, iraileko azken igandean. Garesen bertako Laiariak Taldeak antolatzen du ekitaldi hau, eta Artaxonan, Ondalan Kultur Elkarteak.

Azken urteetan, lehia bizia sortu da bi herriak hauen artean. Norberarena ez den herrian irabaztea da zailena; izan ere Garesko karrikak lau-lauak



● MIKEL SAIZ

dira, eta Artaxonakoak, aldiz, arras aldpatsuak. Bakoitza berera ohitua dago, eta herrietarek irabazten dute.

Laien gainean ibiltzeko giltza oreka mantentzea omen da. «Ibiltzea, berez, erraza da», erran digu Koldo Kolomo. «Aste batean edo, ibiltzeko gai zara. Zailena korrika egitea da. Oreka mantentzea eta bizkortasuna izatea ere ezinbertzekoa da. Eskuen eta hanken mugimendua ere ongi koordinatzen jakin behar da».

## Igandean Garesen da hitzordua

Hemezortzi urteren buruan, ekitaldi galduekina da Laia Lasterketa, bai Garesen zein Artaxonan. Jende aunitz erakartzen du ekitaldiak, eta urtetik urtera laiari gehiagok parte hartzen du lasterketan. Neska-mutiko koskorak ere ari dira, bai, laiekin aurreneko pausoak egiten, eta emakumeek ere aspaldidanik parte hartzen dute ekitaldi honetan. Laiak burdindegietan edo antigoalekoen merkatarietan erosten dituzte, 15.000 pezeta truke. Diru honi etekina ateratzeko eta herri kirol berezi hau ezagutzera emateko, erakustaldiak ere egin izan dituzte herrietan eta Nafarroa Oinez bezalako jaialdietan.


Ikuskizuna ikusteko, igandean da hitzordua. Eguerdiko ordu bata eta erdietan puntu-puntu. Garesko Kale Nagusian. Bertan, aurrez aurre izanen dira Gares eta Artaxonako gazteak. Bi herriak hauen arteko lehia dago jokoan. Laien gainean trebeena izatearen ospea dago jokoan Nork irabaziko? Erantzuna igandean jakinen du Garesera joaten den orok.

→ Kristina Berasain

## Emilio Bañales

ARTAXONAKO, 25 URTE

«Oso giro ona sortzen da lasterketaren egunean, eta korritzeko gogoia izatea baino ez da behar»



● MIKEL SAIZ

### Noiz hasi zinen Laia Lasterketan parte hartzen eta zergatik?

Duela sei urte-edo hasi nintzen. Artaxonako lagunak korritzen zuten, eta animatu ninduten. Oso giro polita sortzen da egun horretan. Hasieran, nire herrian bakarrik korritzen nuen; orain Garesera ere joaten naiz.

### Inoiz irabazi duzu?

Artaxonan bitan irabazi dut. Iaz, esaterako, garaile izan nintzen. Baina Garesen bortzgarren postuan gelditzen naiz.

### Asko prestatzen zara karrerarako?

Artaxonako lasterketarako prestatzen naiz, aurreko bi asteetan-edo aritzen naiz entrenatzen. Han berriro ere irabazi nahi dut. Igandeko lasterketarako ez naiz ezer prestatu. Astelehenean joan nintzen pixka bat probatzera, baina ezer gutxi egin nuen.

### Zein da, zure aburuz, lasterketa irabazteko giltza?

Aurretik ordu batzuk sartu behar dira, baina, nire ustez, funtsezkoa gogoia izatea da, gogoz aritzea. Lurraren izaera ere kontuan hartu beharra dago; izan ere, galtzadarrietan oreka galtzen duzu eta lurre-erortzeko aukera handiagoa da.

## Cesar Ollo

GARESKO, 40 URTE

«Ekitaldi hau oso berezia da niretako, eta gorputzak eutsi bitartean korritzen jarraituko dut»



● MIKEL SAIZ

### Noiz hasi zinen Laia Lasterketan parte hartzen eta zergatik?

Hasieratik hasi nintzen. Nire koadrilari otu zitzaion ekitaldi hau antolatzea, eta nik aurreneko karrera hartatik korritu dut. Oso egun berezia da niretako, eta gorputzak eutsi bitartean behintzat, korritzen jarraituko dut.

### Inoiz irabazi al duzu?

Bai, hemen Garesen seitan-edo irabazi dut. Iaz oso gutxiengatik ez nuen irabazi; azken txanpan erori egin nintzen. Artaxonan ere irabazi izan nuen, baina lasterketa ibilbide lauan egiten zenean, orain maldan gora zailagoa egiten zait.

### Asko prestatzen zara karrerarako?

Nahi baino gutxiago. Lehen, gehiago prestatzen nintzen, baina orain ume txikiak ditut eta ez dut denborarik ateratzeko. Dena den, karreraren aurreko egunean psikologikoki prestatzen dut neure burua, hori da nire sekretua. Iaz, esaterako, goizeko zortzietan ailegatu nintzen etxera.

### Zein da zure, aburuz, lasterketa irabazteko giltza?


Nire ustez, zorte kontua da. Sarritan ez erortzea ezinbertzekoa da irabazteko. Halaber, bizkortasuna eduki behar da, eta indarra, batez ere, besaurrean.



● MIKEL SAIZ

## Laiaren ezaugarriak

LAIA ANTZINA LURRA IRAULTZEKO ERABILTZEN zen lanabesa da. Burdinazko edo altzairuzko bi hortz luze eta horien gainean atxikitzen diren zurezko bi kirtenez osatua dago. Kirtenak aurera okertuta daude. Laiariak lanabesaren gainean jartzen ditu bere oinak, ezkerreko oina hortz batean eta eskuinekoa bertean, eta eskuakin laiaren kirtenei heltzen die. Horrelaxe, ttipi-ttapa, laiariak lurtean sartzen du laia oinaren indar eginez, eta lurra iraultzen du eskuakin mugimendua eginez. Gure arbasoek lur soroak lantzeko erabiltzen zuten tresna hau.



● MIKEL SAIZ

# Hemoal literarioa

**Isilik sufritzen.** Urteak daramatzat gaitza isilik sufritzen. Ez naiz hemorroideez ari. Izan badut odoluzkirik, baina ez ditut isilik pairatzen. Emazteak, seme-alabek, seguru asko hainbat auzokidek badute haien berririk, komunean erraiak husten ditudan aldi oro —batez ere potxak piper minez lagundurik jan eta biharamunean— ihes egiten didaten uluen, oihuen, orroen poderioz. Beste gaitz batez ari naiz, beste arazo askoz lotsagarriago batez: **Aitorren** —zutabe honetako estilo liburuaren arabera, izenaren ondoan abizena jarri beharko nuke, baina bilatu arren ez dut topatu Aitor izeneko agure honen deiturarik— hizkuntza zaharrean irakurtzeak aspertzen nau. Ezin dut **Xabadorren** hizkeran idatziriko libururik burutu. Sentitzen dut. Baina hala da. Agian diglosiaren ondorioa da. Akaso ez nago behar bezain alfabetaturik. Beharbada —eta soilik beharbada— euskaraz diharduten idazleak —oro har eta salbuespenak salbuespen— aspergarri samarrak dira.

**Kakalarririk ez.** Ez dadila inor urduritu. Ez naiz intelektuala, baizik eta Unzuko etxetresna elektriko saltzailea. Hartara, ez dut inoren mirespen aitormenaren beharrik. Ez naiz, esaterako, **Matias Mujika**. Beraz, ez dut arazo honen inguruko libelarik idatziko **Cervantesen** hizkuntza zaharrean. Eta —**Jose Maria Garcian** esamoldeak erabiliz— PRISAren inperio mediatikoaren menpe dagoen egunkariko iritzi sailetik deitzen badidate, ez diet euskara berez izaera bortitzekoa dela azaltzen duen idazkirik igorriko.



Xabador bertsolaria.

**Mirarizko sendagaia.** Nik, besterik gabe, ez dut isilik sufritzen segitu nahi. Hori azaldu nahi dut, bai eta mina arintzeko sendagaia topatu dudala ere. Gerardok —ikurrina baino baskoagoa den Monte Carlo tabernako mus bikotekidea— opari bat egin dit. «Zuretzako opari bat daukat», esan zidan taxista bikote baten aurka jokatzeko ari ginen mus partidaren erdian —**Josetxo Azkona** eta beste bat—. Nik, jakina, Joxetxoren hordagoa gainditzeko hiru errege zituela pentsatu nuen. Oker nenbilen, baina. Gerardok —kartak bazterrean utzita, nire gaitzaren jakitun, **Xabierko San**



Billabesa Iruñeko karriketan barna.

**Frantzisko** balitz bezala eta Japonian federik gabeen artean biblia banatzen ariko balitz bezala— **Unai Elorriaga** ren lehen liburua, *SPrako tranbia*, eman zidan. «Gustatuko zaizu», gaineratu zuen. Eta gustatzen ari zait, gustatzen ari zaidanez, Alzheimerrak jotako agurearen istorioa. Inork urteak badaramatza nik bezala gaitza isilik sufritzen, eros dezala. Mina arinduko dio.

**Beste gaitz bat.** Joan den larunbatean, hain justu, Alzheimerrak jota dagoen nire seme-alaben aitona, emaztearen aita, nire aitagarria, bisitatzeraz ez ginen tranbiaz joan, baizik eta autobusez. Izan ere, kotxerik gabeko nazio-

arteko eguna zen, eta seme-alabek horretara behartu ninduten. Nazioarteko egunek deusetarako ez dutela balio azaltzen tematu nintzen, baina ni baino askoz temosoagoak dira. 4-1 zenbakidun tranbian... Barkatu, autobusean, ezustekoa genuen zain: desagertu da *Geldialdia eskatua* dioen txartela. Jada soilik *Parada solicitada* dioena ageri da ibilgailuaren aurreko aldean. Zenbaitzuk —esaterako, Iruñerriko Mankomunitateko buru **Javier Iturbe** sozialista— nahita dabilta Alzheimerrak jota, nahita ahaztu nahi dute, bai eta ahaztarazi ere, euskara existitzen dela. Azken parafoak panfletoa dirudi. Horrela gabiltzala, azken aholku bat: bihar, bozkatu.



## panpilonia zirkus

### Argia Antsoleagan

Nondik gatoz? Nora goaz? Nor gara gu? Zer gara gu? Bakarrik ote gaude? Nor dago atzean? Zer gertatuko da gero? Galdera ororen erantzuna Iruñeko alde zaharrean dago.

Zergatik nago gaizki? Zein da bide egokia? Zer egin behar dut goiari eusteko? Non dago egia?

Konpresa iragarkiaren gidoia idazten ari ote naiz? Hori dirudi behintzat. Ez da horrela, ordea.

Kezka guztien argia Antsoleaga karrika ilunean aurkitu daiteke. Acuario, hiriburu-ko liburu denda esoteriko bakarra, kale horretan dago kokaturik.

Bakarra eta meharra. Evax bezala. Bertan, zure esanetara, Jose Antonio Arnedo. Gizon fin bezain segurua. Evax bezala. «Esoterismoaren xede nagusia, fenomeno

ezezagunen jatorria eta ezaugarriak ikerzteza da».

Liburu denda luzea da. Haatik, ez da bizitza bezain luzea. Hilerokoa bezain laburra denik ere, ezin esan.

Sartu bezain pronto, ezkerrean, oinarritzko beharrak asetzeko parada. «Elikadura naturalari loturiko makina bat dieta eta errezeta bilduma eskaintzen ditugu. Neurrian eta osasuntsu jatea eta edatea funtsezkoa da».

Aurrera jarraituz, sasoiaren egoteko hainbat bide dauzkagu aukeran. «Gizakiok, ariketa fisikoa eta atsedena ezinbestekoak ditugu. Gorputzak eta buruak oreka gorde behar dute. Helburu hori betetzeko gida bikainak salgai dauzkagu».

Eskuineko apalategietara begira, Jose Antonio Arnedo garapen pertsonalaz hasi



Iruñean dagoen Acuario liburu denda esoterikoa.

da barra-barra hizketan. «Nahiz eta gaizki ez egon, lasai eta gustura bizitzeko, gure burua sakonki ezagutu eta inguruarekin bat egin behar dugu». Atal honetan, autoen trafiko izugarria dago. Autoestimua, autokontrola, autodiziplina, autokontzientzia, autozuzenketa, autoerotismoa eta autoindukzioari buruzko liburuak, bata bestearen ondoan daude aparkaturik.

Sabela bete. Egarrria ase. Izerdi egin. Atsedean hartu. Burua ezagutu dugu. Jada,

### Pello Argiñarena

liburu saltzailearen aburuz, eskailerak jaitsi eta pentsatzen hasteko tenorea iritsi da. «Ezkerraldean, mendebaldeko kulturak, tradizioak eta sinismenak bildu ditugu. Beste aldean, egun, arrakasta eta oihartzun gehien duten ekialdeko ekarpenak».

Horien guztien artean lotura nagusia dago: zerbait edo norbait, egon badago gure ezagutzaren eta jakintzaren mugetatik at.

«Nire ustez, jendeak gero eta kultura zabalagoa du, eta horren ondorioz, gai hauen inguruko jakin-mina hedatzen ari da». Hala ere, tarteka, liburu dendak kontsultaren itxura hartzen omen du. Zenbait, arazo pertsonalak, galdera bitxiak eta kezka harriarriak azaltzen dizkiote gure protagonistari.

Aurki, egungo egoitzatik gertu dagoen Bilbao Taberna zaharrean zabalduko dute egoitza berria.

# Joxean Subizar

🌀 AIZKOLEGI TALDEKO KIDEA

## «Bidasoak eta ingurumena zaintzeko gogoak batzen gaitu»

**D**ATORREN AZAROAREN 10A izanen da Bidasoa errekararen Eguna. Aizkolegi Taldean Baztango, Bertizaranako, Malerrekako eta Bortzirietako jendea bildu da, eta guztiak batzen dituen Bidasoa erreka bera da. Ingurumena zaintzeko gogoak ere batzen ditu taldekideak, Joxean Subizarrek erran digunez.

### Nola sortu da Aizkolegi Taldea?

Joan den urteko urrian, eta aurtengo ekaina bitartean, hemen, Bertizko parkean jardunaldi batzuk antolatu ziren ingurumen hezkuntzari buruz; mintegia bukatu zen baina batzuk bagenuen gai horrekin jarraitzeko grina, ez genuen bertan behera utzi nahi, eta ikusi genuen Nafarroako Gobernuak bazituela diru laguntzak gurea bezalako proiektuak egiteko, eta aurrera egitea erabaki genuen.

### ■ Zein da zuen helburua, edo zuen lan ildo?

Gurea bezalako proiektuak, gehienbat, ingurumenaren inguruan boluntario lana egiteko proiektuak dira. Guk, batez ere, jendea sentsibilizatu nahi dugu, eta proiektuak egin inguruko jendea mobilizatu eta ingurumenaren aferetan barnera dadin.

### ■ Zenbat jende bildu da orain arte Aizkolegi Taldean?

Hogei bat laguneko taldea sortu dugu, oraingoz, baina inguruan beste jende anitz dago, ahal duenean laguntzeko prest.

### ■ Bertzen sortutako taldea da, baina zein da zuen lan eremua?

Zonalde guziko jendea bildu gara, Baztandik hasi eta Bortzirietaraino. Gure lehen proiektua Bidasoa errekararen Eguna antolatzea izan da; Bidasoak biltzen du, hain zuzen ere, eskualde guziko jendea, Baztan, Bertizarana, Malerrekako eta Bortzirietakoa. Eta itxaropena dugu noizbait aitzinera segitu eta Irun aldeko jendea ere elkartuko dela, haiekin ere lotzen gaituelako Bidasoa errekek.

### ■ Zer motatako jendeak egin du bat taldean?

Ingurumena zaintzeko gogo

**Joan den urrian Bertizko parkean egin ingurumen heziketaren inguruko mintegi bat izan da zonalde horretako Aizkolegi Taldearen sorburu.**

**Mintegia joan den ekainean bukatu zen, eta gaiaren inguruan lanean jarraitu nahi zuen jendeak Aizkolegin egin du bat. Bidasoa erreka garbitzea da taldea ezagutzera emateko antolatu duten lehen ekitaldia.**

da batzen gaituena; klase guztietako jendea dago hemen, sektore guztietan lan egiten duena.

### ■ Aipatu duzu Bidasoa errekararen Eguna izanen dela zuen lehen ekitaldia; erreka garbitzea da zuen helburua. Zein egoeratan dago ibaia?

Taldearen sorburu izan den mintegi hartan Bidasoaren egoerari buruzko ikerketa lana egin

rrena. Bortzirietakoek diote Berra alde horretan dagoela zikina erreka, Baztango jendeak dio han jendeak zaborra botatzen duela... bakoitzak badaki bere inguruan zeintzuk diren tokirik txarrenak, eta horrat joko dugu.

### ■ Bidasoa errekararen Egunean zer egingen duzue, zehazki?

Lehendabizi, zonaldeko jendearekin bilera egingen dugu ja-

Guk mila lagunetik goiti biltzeko asmoa dugu, baina ez dakigu eguraldiak lagunduko duen. Printzipioz, mila lagunekin gustura egonen ginateteke, bai.

### ■ Ekitaldi horren bidez, taldea ezagutzera eman nahi duzue jendeak parte har dezan?


Bai, bai. Horrelako proiektuei oihartzuna emateko zerbait antolatu behar duzu, eta guk uste

dugu Bidasoa errekararen Eguna nahiko indar eta oihartzun izanen duela eta aurrerantzean ere lan egiteko aukera izanen dugula, eta hainbat proiektu berriri ere ekinen diogula.

### ■ Aurreratu dezakezu proiektu berririk?

Ideiak baditugu, baina oraindik ez dugu deus finkatu. Proiektu guztiek, noski, ingurumeneko boluntarioen lana izanen dute ardatz. Lehendabizi, indar gehiena egin nahi dugu Bidasoa errekararen Egunean, eta gero zehaztuko dugu gerokoa. Zonaldean, adibidez, ikusi dugu zabortegiaren dela aztertu beharreko arazo bat. Ezin dena da hartu eta zaborra botatzeko toki guztiak kendu; jendeari alternatibak eskaini behar zaizkio, eta hortxe dago egin beharreko lana; zabortegiak, birziklapena... horren inguruan egin nahi dugu lan.

→ Edurne Elizondo



● MIKEL SAIZ

genuen, eta iruditu zitzaigun horrekin jarraitzea garrantzitsua zela, mintegia bukatu ondoren. Errekaren egoera, Erribera aldeko beste hainbat errekararekin alderatuta, ez da txarra, baina hainbat gune zehatzetan erreka zikina dago, eta hor egin behar dugu lan.

### ■ Zeintzuk dira gune horiek?

Honetan gertatzen da, beste gauza anitzetan bezala, bakoitzak uste duela berea dela oke-

kiteko leku bakoitzean nork parte hartuko duen, zenbat jende eta zenbat taldek edo erakundek. Horren arabera antolatuko dugu eguna. Erreka baino gehiago, errekarako bazterrak garbituko ditugu. Besta giroan egin nahi dugu, batez ere haurrak horretan hezi daitezen. Zaborra bildu, birziklatu eta argazkiak egin nahi ditugu gero hemen erakusteko.

### ■ Zenbat jende biltzea espero duzue?

### soslaia

Legasan jaio zen, 1972. urtean, Joxean Subizar, Aizkolegi Taldeko kidea. Nafarroako Unibertsitate Publikoan egin zituen Ingeniaritza ikasketak, Iruñean, eta egun, Elizondoko Lanbide Heziketako Eskolan egiten du lan irakasle gisa. Laster, NUPen hasiko da lan bera egiten.

Ingurumena zaintzeko bere sentsibilitate eta gogoak ogibidearekin lotu du Subizarrek. «Enpresak aztertzen ditugu; beharrezkoak dira, baina anitz zikintzen dute, eta oreka bilatu behar da; hori lortzeko proiektuetan parte hartzea gustatzen zait, alor profesionala eta sentimentala-edo asetzeko».

Aizkolegi talde berria da, eta, oraingoz, Bertizko Turismo Patzuergoaren baitan egiten ditu bere proiektuak. Taldekideak aztertzen ari dira, hala ere, elkarte independentea osatzeko aukera. Orain kideak biltzeko garaia du taldeak.



## Nafar Kronika

Aitor Arotzena

### Adiorik ez Eratsungo maisuari

**A**gur erran digu, batzuen ustez betiko, beste batzuen ustez behin-behineko, historiako pilotaririk onenetako batek eta, du-darik gabe, XX. mendeko txapeladun handienak. Julian Retegik, Retegi II.ak, inork lortu ez duen eta, gaur egun jokatzeko den txapelketa sistemekin, inoiz lortuko ez duen txapel kopurua jantzi du buru gainean. Buruz buru arerio-rik ez zuen izan bere garairik onenean. Hamai-ka txapel irabazi eta hiru aldiz finalista, 1980tik 1993 urtera bitarteko final guzietan izan zen. Binakakoan beranduxeago gailendu zen, akaso bere helburua buruz buruko zelako, agian normalean atzelari txarxeagoak jartzen zizkiotela, akaso binaka aritzean bere dohainak ez zirelako hain nabarmenak. Kontuak kontu, binaka ere borts txapel etxeratu zituen. Eta lau t'erdian zer erranik ez... segur aski eskuko modalitate zailenean ere bikain aritu da Eratsungo maisua. Belaunaldi gazteenek ere gogoratu dute 1997an Titineri altxatu zion final ikusgarri hura. Urrunago joan gabe, joan den urteko finalean sartzeko puntuan izan zen, hanka arraka zebilenean ere.

Retegiren aldekoa edo kontrakoa, tarteko biderik ez da izan inoiz nonbait, eta agurraren orduan ere polemika sortu da. Batzuen ustez, lehenago egin behar zuen, duela lau urte adibidez, lau t'erdiko eta binakako azken finalak irabazi zituenean, onen-onenean, beraz. Bertze batzuek diote azken partida horietan pilota motelak jarri zizkiotela, arerioek minik ez emateko, edo arerioak beraiek ez zirela bete-betea ari. Kontuak kontu, Julian Retegiri irabazi egin behar zaio beti, berak ez baitu partida galdutzat ematen, konpetizioa izan nahiz udako partida izan. Azken partida horiek gehienak galdu egin zituen, baina guzietan ez bada gehienetan lanak eman zizkion etorkizuneko figurak izatera deituak direnei. Ez da aski izan, segur aski, bere kontrakoak isilarazteko, baina xokoa utzitako pilota horiek edo ezkerretik ezkerera luzatutako pilotakada horiek kirolari batenak ez ezik matematiko batenak ziruditen azken partidaren ere. Gorputzak ez dio barkatu, baina bere zaleek bere hutsegite bakan guziak barkatu dizkiote eta Retegirik onena gelditu da beraien gogoan.

## gure aukerak

### MUSIKA

► **Baraibar:** Gozategi taldeak kontzertua eskainiko du, bihar iluntzean, Baraibarko frontoian.

### ANTZERKIA

► **Iruñea:** T'Ombligo antzerki taldeak *Zeta bezalako* antzezlanataularatuko du, gaur iluntzean, 20:00etan, Gaiarre antzokian.

### TOPAKETAK

► **Ezkaroze:** Bihar, larunbata, Pirinio Aldeko Emakumeen aurreneko topaketa eguna ospatuko da, Zaraitzu ibarreko Ezkaroze herrixkan. Bertan hitzaldiak, ikastaroak, herri-bazkaria eta musika izanen dira.

### BERTSOLARITZA

► **Baraibar:** Gaur gaueko 21:30ean, bertso-afaria izanen da, herriko ostatuan. Bertan Angel Mari Peñagarikano eta Jesus Mari Irazu bertsolariak ariko dira.

► **Igantzi:** Bihar arratsaldeko 19:30ean, Xabier Amuriza, Amaia Agirre, Amets Arzallus eta Xabier Legarreta bertsolariak entzuteko parada izanen da, Igantzin.

### IKASTAROAK

► **Iruñea:** Sormen Tailerrak Euskaraz egitarauan matrikulatzeko epea gaur akituko da. Izena arratsaldean eman behar da, Gazteriaren Etxean. Argazkigintza, pintura, txalaparta, zeramika, dantzak, irratia eta antzerki ikastaroak daude aukeran, berteak berte.

► **Euskara:** Iruñerriko IKA zentroetan euskara ikasteko taldeak osatzen ari dira. Izena emateko azkeneko egunak dira hauek. Informazio gehiago, Arturo Campion, Barañain, Atarrabia, Mendillorri eta Ermitagañako euskaltegietan.

► **Antzerkia:** Umeak antzerkigintzan trebatzeko ikastaroa prestatu du Nafarroako Antzerki Eskolak ikasturte honetarako. Umeei zuzenduak daude aipatu ikastaroak. Informazioa eta izena emateko, 948-210360 telefono zenbakian.

### ERAKUSKETAK

► **Iruñea:** Planetarioan Euskal Herriko artista aunitzen margolanak paratu dituzte, Goall! izenburupean, gaixorik dagoen haur koskor bat laguntzeko xedearekin. Sarrerak 500 pezeta (20 libera) balio du, eta ikusle

guztien artean 43 artelan zozketatuko dira.

### LEHIAKETAK

► **Literatura:** Iruñeko Udalaren Egile Berrientzako XVI. Literatur Lehiaketarako lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira. Lehiaketak lau sail ditu: olerkia, narrazio laburra, bertsopaperak eta komikia. Argibideak, 948-222008 telefonoan edo [cultura@ayto-pamplona.es](mailto:cultura@ayto-pamplona.es) helbide elektronikoa.


► **Argazkigintza:** Nafarroako Donejakue Elkarteak antzinako bidea

sustatzea xede duen argazki lehiaketan parte hartzeko deialdia egin du. Argazkiak Santiagorako bidea izan behar dute ardatz, eta zuri-beltzak zein koloretakoak izan ahal dira. Lanak urriaren 15a aitzin igorri behar dira, 4020 posta kutxara, 31080 Iruñea.

### BERTZELAKOAK

► **Lodosa-Sartaguda:** Urriaren 21eko Nafarroa Oinez bestan laguntzeko 2.500 lagun behar dituzte. Prest baldin bazaude, deitu 669-552096 telefonora eta Joxeanez galdetu.

● JOXE LACALLE



### Ezetz asmatu!

Zer ote da ondoko argazkian ageri dena? Bota, bota. Ezetz asmatu! Eta ondoan daukazunari galdeztzen badiozu? Zer erran dizu? Koadro abstraktu horietako bat dela? Hotz, hotz. Izan liteke, bai. Vasily Kandinsky; Gustav Klimt edo Mondrianen margolana izan liteke, bai. Geometria ardatz duen artista baten lana izan liteke. Baina ez da. Zer ote da orduan? Itxoín, argibide bat emanen dizugu: hurbil zaitez ume kozkor batengana eta hari galdeiozu. Zer erran dizu? Zer? Bai, seguru asmatu duela. Eta ez dizu erran bertara jostatzera eramateko. Kulunkatu ahal du bertan, txirristan behera jaurti ahal du bere gorputza. Iratxe monasterioaren plazan paratu berri duten jostatzeko parkea da. Argazkia Irrintzi dorreko 13. pisutik dago hartuta, EGUNKARIAREN egoitza, hain zuzen ere.